

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Nekazaritza-ekoizpena (landare edo animaliena), honen helburu nagusia kalitaterik handieneko elikagaiak lortzea delarik, ingurumena errespetatuz eta lurraren emankortasunari eutsiz, natur baliabideen erabilerarik onena eginez, sintesiko produktu kimikoen erabilera baztertuz eta nekazaritza eta abeltzaintzan garapen iraunkorra bilatuz.

MERKATU-DATUAK

Azken urteotan, nekazaritza ekologikoaren garapena bizi dugu, eta hor eragina du elikadura-segurtasunarekiko eta ingurumen-arazoez gaitan kontsumitzaileen kontzientzia-hartze gero eta handiagoak. 2000. urtean EB-ko Nekazaritzako Azalera Erabilgarriaren (NAE) %3 bakarrik zen arren, nekazaritza ekologikoa Europako Batasunaren barruan nekazaritza-sektorerik dinamikoenetako bat bihurtu da. 1993 eta 1998 artean, arlo hori %25 inguru hazi zen urtean, eta kalkulatu da, 1998az geroztik, hazkundera %30 ingurukoa izan dela urtean. Honela, nekazaritza ekologikoaren garapenak goranzko joera bizia du Espainian, 2001ean 16.576 langile (ekoizle eta elaboratzaile) ziren eta 485.140 ha. EAEn nekazaritzan eta abeltzaintzan honelako produkziara bideratutako eremua 569 ha-koa da dagoeneko, 100 langilerekin (80 ekoizle, 20 elaboratzaile). Lur-ekasiaz kontuan izanda, ohargarria da gure erkidegoan nekazaritza ekologikoaren zeregina. Bestalde, nahiz eta produktu hauen kontsumoa Espainian oraindik oso txikia izan, nekazaritza ekologiko gehiena esportatu egiten baita, eskaera gehitzen ari da eta elikadura-banaketako enpresek gero eta apustu handiagoa egiten dute produktu “berdeen” alde, are gehiago gure lurrian, kalitatezko gastronomiaren tradizio handia baitago.

ENPRESA-PLANA

Marketin-plana

□ *Produktua*

EAEn batez ere belardi, larre eta ganadu-jana ekoizten du honelako nekazaritzak eta abeltzaintzak (360 ha inguru, eremuaren %60, erabiltzen da honetan), baina baita barazki, lekaleak, laboreak, lekadunak, fruituak eta mahatsa. Produktuak hain iraunkorrak ez diren ekoizpenetan bezain bariatuak izan daitezkeen arren, nekazaritza ekologikoa oso arautua dago Europako Erkidegoak 1992az geroztik emandako araudi zorrotzen bidez, eta hauek ekoizpenaren fase guztiak arautzen dituzte, biltegiatzea, eraldatzea eta ontziratzea barne.

□ *Sustapena*

Bestalde, 2000. urteaz geroztik, Europako Batzardeak logotipo bat sortu zuen: “Nekazaritza Ekologikoa – CE Kontrol Sistema” (Kontseiluaren

Erregelamendua (CEE) zka. 2092/91), nork bere borondatez erabiltzeko asmatua, Europako Erkidegoaren legeria betetzen duten sistemak eta produktuak dituzten ekoizleen produktuak sustatzeko.

Europako logotipo hau eta EAeko berezia erabiltzeaz gain, komeni da publizitate guztiak garbi aipatzea honelako produktuek kontsumitzaileari ekartzen dizkieten onurak osasunaren aldetik. Sustapenerako sistemarik ohikoenetakoak ontzi biodegradagarriak dira prestazio berezituekin, girotze bereziak saltokian edota bakar-bakarrik denda espezializatuetan saltzea.

Plan Operatiboa

□ Instalazioak

Honetarako ur-instalazioak, elektrizitatea, ureztatze-sistema eta produktuak gordetzeko biltegiak izan behar ditu baserriak. Gainera, Europako Erkidegoko araudiek honetaz diotena bete beharko du.

□ Ekipamendua

Eskorgak, traktoreak, inauskaiak eta ekoizpen-motaren arabera beharrezko tresna eta makina guztiak behar dituzte, sintesiko produktu kimikoak ez erabiltzea, ongarri gisa berezko edo naturalak erabiltzea, makinaria astuna edo erregaiak ere ez erabiltzea, biozidak eta produktu toxikoak saihestea...

Giza baliabideen plana

Ez da behar titulazio berezirik, baina garrantzitsua da arduradunek nekazaritza ekologikoaren teknikak ezagutzea, eta horretarako nekazaritza ekologikoan prestatzeko era askotako ikastaroak ematen dira.

Inbertsio-plana

Negozioa abian jarri aurretik inbertsio-plana egitea komeni da eta finantzaketa-iturriak zehaztea. Gainera, kontuan izan behar dira honelako ekoizpenetarako Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntza ekonomiko guztiak.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

<http://www.lanbide.net>

Intereseko beste datu batzuk

Kontsumoa: Produktu ekologikoen arazoetako bat zera da: bere prezioa ohikoena baino garestiagoa dela %15 eta %20 artean, bai fruituetan eta bai barazkietan. Horregatik ekoizle batzuek bitartekariak saihesten dituzte produktuak merkaturatzerakoan, eta zuzenean saltzen dizkiete honelako produktuen kontsumitzaileen elkarteei. EAEn produktu ekologikoen kontsumitzaileen lau elkarte daude: Otarra Gipuzkoan, Bizigai eta Sumendi Bizkaian eta BioAlai Araban.

Administrazio-izapideak

□ *Izapide orokorrak*

IAE: 011 (nekazaritzako ekoizpena), 012 (abeltzaintzako ekoizpena), 013 (nekazaritzako ekoizpena abeltzaintzako ekoizpenarekin konbinatuta).

CNAE: 011 (nekazaritzako ekoizpena), 012 (abeltzaintzako ekoizpena), 013 (nekazaritzako ekoizpena abeltzaintzako ekoizpenarekin konbinatuta).

□ *Izapide espezifikoak*

Nekazaritza ekologikoko ekoizlearen ziurtagiria lortzeko, ekintzaileak bere ustiapenerako lur-saila behar du eta zenbait proba gainditu: hasteko, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Nekazaritzako Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzari eskaera egin behar zaio, honek beharrezko izapideak egingo ditu urtebeteko ekoizpenaren ondoren eta beharrezko kontrolen ostean ekologikoaren ziurtagiria eman ahal izateko. Gainera, ekoizpenari buruzko kontrolak urterokoak izango dira ziurtagiria mantendu ahal izateko.

IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK

□ *Balio berriak, bezero berriak*

Elikadura-osasunari buruz gero eta handiagoa den kezka nekazaritza ekologikoa bultzatu du. Elikaduraren Nazioarteko Foroak eragindako “Kontsumitzailea XXI. mendearen hasieran” azterlanak garbi uzten du gure ohiturak kalitate handiagoko eta naturalak diren produktuen aldera makurtuko direla. Horregatik, garrantzitsua da produktuaren naturaltasuna azpimarratzea ontzi ekologikoen bidez, saltokietako giro berezien bidez eta denda espezializatutan saltzen jarrita.

□ *Produktua helaraztea*

Produktu ekologikoen kontsumitzailearen profilak maila sozio-ekonomiko ertaina du, 35 eta 49 urte artekoa, bere osasunaz eta ingurumenarekiko errespetuaz arduratua. Bezero ekologista hauei hornidura erregularra ziurtatu behar zaie, bai produktu freskoen handizkarien bidez, denda espezializatuen bidez edo produktu ekologikoen kontsumitzaileen sare edo elkarteen bidez, bezeroari produktua bere etxean eman ahal izateko.

□ *Sustapen-proiektuetan parte hartzea*

Arlo hau sustatzeko erakundeen kanpaina guztietan parte hartzea komeni da. Kontsumitzaileek oraindik informazio gutxi baitute produktu ekologikoei buruz. Orain hazten ari da honelako elikagaiekiko interesa, eta horien jatorria eta kalitatea bermatzen duen etiketa jendeak gehiago ezagutzea lortu behar da.

HELBIDE INTERESGARRIAK

http://www.europa.eu.int/comm/agriculture/qual/organic/index_es.htm

http://www.euskadi.net/agricultura/indice_c.htm

<http://www.mendikoi.net/>

<http://www.nekanet.net/>

<http://www.agroecologia.net>

Nekazaritza Ekologikoaren Euskadiko Federazioa – Telefonoa: 943-76 18 00